



Ezkerretara, atzo goizaldean bildutako harria. Eskubitara Oria Mendi lore mintegiko kristalezko teilatua hautsita.

Harri erauntsi latza bota zuen atzo goizaldean

Kotxeak mailatuta: Zenbait kotxe mailatuta utzi zituen harri erauntsiak eta txoarreak hilda azaldu dira Tilosetan.

Minutu inguruko jasa: Goizeko 00:40 inguruan hasi zuen harri erauntsia eta minutu ingurukoa izan zen.

Horrelako gehiago: Hainbesteko harririk ez al du berriz egingo, baina, trumoi eta erauntsi gehiago izan litezke datozen egunetan.

OSTEGUN gauetik ostiral goizaldeko tarte horretan izugarritzko harri erauntsia egin zuen Hernanin eta 3 zentimetro inguruko kazkabar aleak bota zituen. Erauntsiak minutu inguru iraun zuen eta zuri-zuri eginda gelditu ziren inguruak. Egun osoan egin zuen bero sargoria, eta ikusten zen momentu batetik bestera lehertu zitekeela.

Arratsaldean, euri zaparrada latzak bota zituen eta goizaldean egin zuen harria.

Behin harri eraso bukatuta euria egin zuen puska batean, baina berehala atertu zuen.

Txikizioak
Hainbesteko harririk ez zen aspaldiko urteetan ikusiko Hernanin, eta puska batean berriz ikusiko ez badugu ere berea utzita alde egin du. Kotxe askotako kapotak mailatu zituen eta Udaltzaingoak Kronikari esan dionez Tilosetan, txoarreak hilda azaldu dira. Horrez gain,

baratza eta fruta arboletan ere eragin du kaltea eta arbola askotatik botatako aska eta hostoak ikusi zitezkeen atzo.

Meteorologoen diotenez trumoi eta erauntsi gehiago izan litezke datozen egunetan inguru honetan.

Airea berotzean
Trumoi-erasoa izan dedin aire heze masa batek berotu egin behar du lurrarekin kontaktuan. Masa berotzen denean gora egiten du eta atmos-

ferako goiko geruzetan hoztu eta kondensatu egiten da lurrun dutako ura eta horrela sortzen dira urez betetako lainoak. Aire beroak eta laino heze eta hotzak elkar jotzean sortzen dituzte ekaitzak.

Azterketek diotenez, Nafarroako erribera aldea da tximista eta trumoi gehieneko lurraldea eta Araban ere asko izaten dira. Gipuzkoan, Deba Goierna eta Pasaia aldea dira ekaitzik gehiena izaten diren tokiak. □



Patxin eta Potxin pailazoak.

Umeentzako festa gaur Zikuñagan

ZIKUÑAGAN umeentzako festa dago gaur goiz eta arratsalde, Auzo elkarteak antolatuta. Goizeko 11:00etatik eguerdira arte umeentzako jolasak izango dira. Arratsaldean, berriz, Patxin eta Potxin pailazoaren emanaldia izango da arratsaldeko, 17:00etatik aurrera, eta pailazoaren emanaldia bukatzen denean txokolatada izango da

inguratzen diren umeentzat.

Festak berreskuratzea
Garai batean dezenteko festak egiten ziren Zikuñagan, baina, bertan behera gelditu ziren. Orain lau urte auzo elkarteak hartu zuen bere gain festak antolatzea eta umeentzako festa egingo dute aurten, auzoari bizi piska bat emate aldera. □

Alkateak Bildu Hernaniren galderak erantzun ditu

OSTEGUNEKO plenoan Bildu Hernanik Gobernu Taldeari egingako galderei buruz Joxe Antonio Rekondo Alkateak erantzuna eman zuen plenoan bertan. Bildu Hernanik egindako informazio eskaerari buruz Alkateak esan zuen eskatutako informazioa bidean dela eta bere jokaera izango dela jasotako informazio eskaerak erantzutea. Oraindik iritsi ez bazaie bidean gertatutako arazoengatik izango dela erantzun zuen Alkateak.

Bestetik, Bildu Hernanik salatu zuen Berdintasuna Sailari inmigrazioarekin lotutako lanak ematen ari zaizkiola eta adierazi zuten berdintasun gaiei buruzko pertsona bat ari beharko lukela eskusiboki lanean. Horren aurrean Alkateak erantzun zuen hori betiko arazoa dela, hau da, baliabide gutxi daukela eta beharrak haundiak direla. Horrekin batera esan zuen ez dela Udaleko sail bakarra beste lan batzuk erantsiak dituen. Honi gehitu zion ez dakitela oraindik inmigrazioari buruzko lanak Hernanin zenbat lan ordu suposatuko lituzkeen eta planteatzen ari direla eskualde mailan inmigrazioari buruz arduratuko den profesional baten beharra aztertzea. □

Inzinerazioaren kontrako kalejira bihar Donostian

ERRAUSKETAREN kontrako hainbat kolektibok kalejira deitu dute biharko. Kalejira eguerdiko 12:30etan aterako da Boulevardko kioskotik eta Donatximini Suemaileen Kofradiaren laguntza izango du. Kalejira festa giroan egingo da eta goizetik izango dira inzinerazioaren kontrako ekintzak: goizeko 10:00etan tximini ibiltari erraldoia eraikitzeak aukera izango da, trikita ere ibiliko da Alde Zaharrean zehar eta sinadura bilketa egingo dute Boulevarden eta Etxekalte Portuko sarreran. □

Antziola-Motor

Salmenta eta tailer zerbitzua



Ford FocusC-MAX

Ford Focus, familiako kide berria



eta Ford gama guztia

ANTZIOLA AUZOA 12 - HERNANI - TEL.: 943 55 57 72
ORDUTEGIA: ASTEAN 9-19 ETA 16-20 - LARUNBATETAN 10-19

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA ZORIONAK!

HABEREN 1. edo 2. maila, EGA agiria edo hizkuntz eskakizunen bat ateratu duzuen guztioi

04-05 IKASTURTERAKO MATRIKULALDIA ZABALIK irailaren 6tik 24ra

Diru-laguntzak ere badauzkagu. Galde ezazu euskaltegia (Karobieta 63an, anbulatorio zaharrean)!
☎ 943 331896

e-mail: euskaltegi@hernani.net
Ordutegia: 9:00-13:00 / 16:00-19:00

HERNANIKO UDALA



musika eskola DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerre
☎ 943 33 12 33 - 20120 HERNANI

Musikaren lenguaia
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria Modernoa



Tronpeta
Triki-tixa
Kitarra
Abesbatza
Armonia

MATRIKULA ZABALIK:
IRAILAREN 6tik 17ra. Arratsaldetan, 16:00etatik 20:00etara.

HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK ~ TALDE TXIKIAK ~ MUSIKA LENGUAIA 4 URTETIK



Jesus Uzkudun eta Txema Mercado osteguneko prentsaurrekoan.

Ezker Batuak “hautetsien eta pertsonen kontrako kanpainak” ez onartzeko dei egin die hernaniarrei

■ Zenbait zinegotziri lapurrak deitzen zien kartelak salatu ditu ■ Legez kanporatutako Batasunako buruek “dimititzeko egindako presioak” ere salatu dituzte.

HERNANIKO Ezker Batuak prentsaurrekoa eman zuen atzo Udaletxean eta Udaleko zinegotzien kontra azalduko kartelak salatu zituen, tartean Beatriz Fernandino Ezker Batuko zinegotziaren izena ere agertzen baita. Jesus Uzkudun Ezker Batuko Hernaniko koordinadoreak eta Txema Mercado zinegotziak hitz egin zuten prentsaurrean eta beren hitzetan San Joan bueltan ateratako kartel horiek amorra arazi ditu, “isiltasun konplizea zenbatekoa izan den ikusita”. Horrez gain, salatu dute “Legez kanporatutako Batasunako buruek zenbait zinegotzi dimititzera presionatu izana”.

“Diskurtso kontrajarria”

Ezker Batuaren hitzetan diskurtso faltsu eta kontrajarria darabilki Ezker Abertzaleak “esku batekin elkarrizketa eta arazoa konpontzeko indarrak elkartzea bilatzen duten bitartean, bestarekin beren legez kanporatzearen kontra nabarmen azaldu diren zinegotziak akosatu nahi baitituzte”.

Ezker Batuak salatu zuen

baita ere berak 2 zinegotzi hartu dituztela “nahiz eta gaur egungo sistemaren arabera eta Bildu Hernani legez kanpo dagoela kontuan hartuta 3 zinegotzi hartu genitzakeen”. Ezker Batuak dio Legez kanporatutako plataformaren botuak kontuan hartu dituztela eta zinegotziak banatzeko gaur egungo sistema erabili beharrean

“Erremedioa jarri genuen mahai gainean: pakean eta demokratikoki, erreferendum bat egitea baina ez zuten nahi izan”

“Kanpaina honen aurrean isilik geratzea oso arriskutsua da eta jendeari bere retxazoa agertzeko dei egiten diogu”

(Hont-en legea alegia), proportzionaltasuna hartu dutela kontutan. Ezker Batuak dio Partiduen Legea injustua den bezalaxe dela injustua Hont-en legea eta Ezker Abertzaleak ez duela hori salatzen. Ezker Batuak dio proportzionaltasuna kontuan hartuta Bildu Hernaniri ez dagozkiola 8 zinegotzi Hernanin 6 baizik. Baita ere esan zuen boto gehiago dituztela Eusko Jaurlaritzan Gubernuan dauden hiru alderdiek batean Bildu Hernanik berak baino eta ez dela ilejitimoa beraz Alkatetzan berak egotea.

Akosoa salatu

Ezker Batuak prentsaurrean “akoso kanpaina” salatu zuen. Beren hitzetan karteletz gain, dimititzeko dei egiten ari dira orain eta “karta pertsonalizatuak” bidaliko dituela ere esan du Ezker Abertzaleak. Hernaniarrei dei egin zieten “hautetsi eta pertsonen kontrako” kanpaina hauek ez onartzeko, eta baita aukera politiko guztiak hauteskundeetan tokia izateko eskubidearen alde egiteko ere. □

ZERBEZA FERIA - ERRUGBI ELKARTEA



Ixaak Salaberria ohorezko txotx-a egiten.

Inaugurazio arrakastatsua

OSTEGUNEAN egin zen Errugbi Elkartek antolatutako Zerbeza Feriaren inaugurazioa. Inaugurazioan ohorezko txotx-a Ixaak Salaberria Fagollaga jatetxeko sukaldariak egin zuen, garai batean errug-

bian aritutakoak. Errugbi Elkartek adierazi du uste baino harrera hobea izan duela Zerbeza Feriak eta jende ugari bildu dela.

Oraindik ere badago aukera gaur eta bihar. □



I URTEURRENA

Jose Luis Urdangarin Casado ‘Kitxin’

2003ko abuztuaren 4an hil zen

Jose Luis joan zela urtebete pasa den honetan, andreak eta seme-alabek oroigarri meza eskaini nahi diogu, eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu ezagutzen zenuten guztiak..

Oroigarri meza, **gaur, larunbata, irailak 11**, arratsaldeko ZAZPIETAN, ASTIGARRAGako parroki elizan.

Hernanin, 2004ko irailaren 11n.



ESKERTZA

Anttoni Aranburu Mendizabal

Irailaren 2an hil zen, 87 urte zituela

- Goian Bego-

Anttoniren senitartekoez eskerrak ematen dizkizuegu samin-agurra bidali zenutenei eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin, 2.004ko irailaren 11an



Telemar
Itxastele, S.L

KLIMATIZAZIO
ESKAINTZA

AIRE EGOKITUA
Instalakuntza mixtoak
Hotza eta beroa

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.:943 55 33 99 - 943 33 00 60



**HERNANI
HIZKUNTZAK**
(Gure Ingelesetxea)

ZORIONAK guztiontzat
Advanced eta *First*
azterketak gainditzeagatik.

**DATORREN
IKASTURTERAKO**

MATRIKULA ZABALIK

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶Taxiak: 943 550093
- ▶Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶DYA: 943 464622
- ▶Autobusak: 943 556662
- ▶Anbulatorioa: 943 006666
- ▶Jokalarri anonimoak: 943 331103
- ▶Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
- ▶Gauetz: Orue
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Pertsona bat behar dugu, 2 ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. 7:30etatik- 15:30etara gutxi gorabehera. Irakasle egutegia eta Aieten da. Deitu: **943 31 47 84 - 669 89 10 34**

Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**